

elkar

UDA 2019
56. ZENBAKIA
www.elkar.eus



SAMARA VELTE

*Nik sinesten dizut,
bortxaketaren kultura agerian*



LUIS LANDERO
Palabras peligrosas

KATTALIN MINER
Moio: gordetzea ezinezkoa zen

IZEN PROPIOAK:

Mikel Irurtia · Mari Mar Agos · Irati Jimenez · Antton Olariaga · Patxi Zubizarreta
Paolo Cognetti · Joxemari Iturrealde · Juan Carlos Jimenez de Aberasturi · Joan Mari Irigoien
Castillo Suarez · Mikel Alvira · Juan Mari Feliu · Agurtzane eta Iñaki Elustondo · Belatz






EGIN HARPIDETZA!

ETA JASO ELKAR DENDETAN
ERABILTZEKO 10€-KO BONOA!

Baliatu gure eskaintza berezia eta jaso urtean iRRiAren 10 ale etxean!!

URTEAN
49€



HARPIDETZA EGITEKO AUKERAK:

Telefonoz: 902 820 806 zenbakira deituz

E-posta: harpidetza@irrienlagunak.eus helbidera idatziz.

www.irrienlagunak.eus/harpidetza-n izena emanaz.



BELATZ



Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan

@elkar

elkarTaldea

flickr elkartaldea

postdata.elkar.eus

www.elkar.eus

elkar
liburu-dendak

ALGORTA (GETXO)
Telletxe 11
94491 66 16

ARRASATE
Erdikokale 14
943 79 78 29

BAIONA
Arsenal plaza
559 59 35 14

BASAURI
Dr. Jose Garai 11
944 26 13 84

BERGARA
Ibargarai 7
943 76 40 50

BILBO
Licenciado Poza 14
944 43 47 08

Iparragirre 26
944 24 02 28

ZAMUDIOKO
ataria Zaplikale
944 16 14 50

DONOSTIA
Fermín Calbetón 21
943 42 00 80

BERGARA 6
943 42 63 50

GASTEIZ
San Prudencio 7
945 14 45 01

APRAIZTARRAK 1
Campus
945 14 16 70

HERNANI
Kale Nagusia 30
943 22 41 67

IRUN
Colon pasealekua 8
943 63 17 26

IRUÑEA
Comedias 14
948 22 41 67

TOLOSA
Arostegieta z/g
943 67 35 33

Viajó hasta el **fin del mundo**
para tallar el **destino** con sus manos

El Orfebre
RAMÓN CAMPOS

Planeta



SAMARA VELTE

**“Bortxaketa bakoitzaren
azpian dagoen sistema
osoak ikusarazi du
sanferminetako kasuak”**

**Biolentzia estruktural eta isilago
batzen izebergaren punta dira
eraso sexistak, eta ezkutuko zati
hori erretratatu du Samara Velte
kazetariak. 2016ko sanferminetako
uztailaren 6ko bortxaketa da ikerketa
lanaren mamia, baina hark izandako
adarkatze mediatiko, judicial eta
sozial guztiak aztertu ditu puntuz
puntu, eta argia da azken ondorioa:
eraso sexistak ez dira salbuespenak.**

**Sanferminetako kasua da liburuaren mamia, baina
na bortxaketaren kulturaren kontzeptua aipa-
tzen duzu. Zer da?**

Bortxaketaren kultura aipatzen dugunean osotasun bat deskribatu nahi izaten dugu. Kritika feminista batzuk badaude izendapen hori erabiltzearen kontra, oso hitz potoloa delako eta irudi dezakeelako gauza mugiezin bat, baina balio du esplikatzeko hedabideek, epaitegiek, gizartearren erreakzioak eta bestek sistema bat osatzen dutela, zeinean elementu gehienak elkarrekin harremanetan dauden, eta, gainera, elkar indartzeko joera daukaten. Bortxaketa bat ez da bukatzen kale bazter horretan gertatzen den eraso fisikoan; hedabideetan egiten den irakurketak edo epaitegietan ematen zaion trataerak ere elikatu dezakete bortxaketa hori. Ekintza biolento edo ikusgarri hori

izan daiteke espresio bat azpitik dauden desoreka sexista guztien, eta horregatik aipatzen dugu bortxaketaren kultura.

Zerk bilakatu du ikur sanferminetako kasua?

Garai guztietan egoten dira bortxaketak, modu askotarikoak dira eta espazio guztietan ematen dira. Horregatik, oso eszeptikoa naiz arreta mediatico nabarmenegia jasotzen duten kasuekin, iruditzen zaidalako askotan baliio digitela arreta desbideratzeko, eta irudi osoa ikusten lagundu beharrean, bortxaketaren inguruko irudia distorsionatzen dutelako. Liburuak ez du Iruñeko kasua ezohikoa balitz bezala aurkezten, baizik eta alderantziz. Beharbada kasu honek hartu duen dimentsioa hartu du, batu dituelako bortxaketaren kultura osatzen duten elementuak eta oso bistan utzi dituelako.

**Ningún destino
en manos de
Víctor del Árbol
es insignificante.**

**Un mapa literario
del alma humana.**

Siberia, en *Un millón de gotas*;
A Costa da Morte, en *La víspera de casi todo*;
Malmö, en *Por encima de la lluvia*.
Y ahora Uganda, en África.

DESTINO

Zein dira elementu horiek?

Bistan gelditu da, adibidez, indarkeriaren erabilera oso bortitz bat. Bistan gelditu da espazio publikoaren, gauaren eta festaren jabetza. Bistan gelditu da indarkeria mediatico eta diskurtsiboa makinaria, eta baita instituzio juridikoen motxila atzerako eta sexista ere. Eta horrekin kontrastean eta aipatutako elementu guztiaak are bistakoago egiteko, hau dena gertatu da Iruñea bezalako hiri batean; alegría, indarkeria sexisteikin oso kontzientziatuta dagoen toki batean, gaia-rekin lanketa handia egin duen leku batean, eta, gainera, erantzun oso indartsua eman duen hiri batean. Kasu honek oso modu gordinean ikusarazi digu nola dagoen sistema oso bat eraso bakoitzaren azpian, baina ez kasuaren ezohikotasunagatik, baizik eta kontrakoagatik.

Alor judizialak hartzen du liburuaren parte handi bat. Biktimaren aurkako beste eraso bat gehiago balitz bezala deskribatzen da epaietako.

Oso erraz esaten zaie emakumeei beti salatu behar dela, eta oso orokortuta dago diskurso hori, baina inoiz ez da esaten, behin salaketa jarrita, zer tokatzen zaizun eta nola bukatu dezakezun. Eta kasu honek argi erakusten du prozesu judizialak birkintmenean egiten duela bortxaketa bat salatzaten duen biktima. Salatzaleak oso kontziente izan behar du horretaz. Egia hori oso ezaguna da esparru judizialean, baina diskurso publikora ez da apena iristen. Horregatik eskandalizatzen gara sanferminetako kasuaren moduko epaiak iristen direnean, frogatu gabetzat ematen duelako, adibidez, emakumea bortxaterakoan bost gizon haiek indarkeria edo intimidadiorik erabili zutenik. Etengabe topatu daitezke hala-kaoak, eta saiatu naiz horren arrazoiak bilatzen: epaileen formakuntzagatik ote den, arauaren idazketa okerragatik, arazoa sakonagoa delako...

Bortxaketa hari buruzko bi errelatoaren arteko gatazka deskribatzen du liburuak.

Idazten hasi nintzenerako argitaratuta zeuden gaiari buruz atera zitezkeen daturik gehienak, baita morboa elikatzea beste funtziorik ez zeukanen ere. Horregatik,



AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: FERNANDO ROJO

indarkeria hari buruz egon diren interpretazioak aleztean izan da nire lana: Zer da komunikabideek esan dugutena? Zer da epaietietan ateraz zena? Zer esaten zen kalean, eta zer proposatzen du mugimendu feministak? Diskurso horien guztien azterketa kritikoa egin dut, eta saiatu naiz baliagarria zaigun errelato bat sortzen. Asmoa izan da dato guztien artean bereiztea ea zein ziren benetan erabilgarriak indarkeriaren aurkako posizio kritiko, feministak eta konstruktibo bat eraikitzeko, eta zein ziren soilik morboea eta beldurra sustatzen zutenak. Azken finean, liburuan saiatu naiz tresna bat eskaintzen horrelako kasuak gertatzen direnean begirada zorroztuago edukitzeko.

Eta, lanketa honen guztiaren ondoren, hobeki prestatuta gaude hurrengo kasu baterako?

Kasu honek diskurso publikoan txertatu ditu mugimendu feministaren irakurketa batzuk, eta nahiko hechapen izan du justiziari egindako kritika feministak ere.

Salto kualitativo bat izan zen, adibidez, "nik sinesten dizut" leloaren zabalpena; horrek erakusten duelako biktimarekiko kuestionamendurik gabeko babes, eta oso garrantzitsua da hori. Bortxaketa bat gertatzen den bakoitzean sinesgarritasunaren ingurukoa izaten da gerra diskurtsiboa, eta biktimari ukatu egiten zaio sinesgarritasuna: kuestionatzen zaio prentsan eta kuestionatzen zaio epaietikan eta berdin gizartean ere, eta "nik sinesten dizut" leloak frenoa jartzen dio horri. Frente bat eraiki zen erasotutako sinesgarritasunaren alde. Emakume askok ulertu zuten ez zela soilik biktimaren sinesgarritasuna zalantzan jartzen, baizik eta denona. Hori da lorpenetako bat, eta kasu honek praktika oker asko agerian utzi dituen bezala, haien aurkako kritika asko ere agerrazti du.

■
ÍÑIGO ASTIZ
Kazetaria



“
Sobrevivir, salvarse a una misma
es la mayor autodefensa que tenemos
en el momento de la violación,
¡no podemos hacer otra cosa
más que intentar seguir vivas!





MARI MAR AGOS
Bibliotecaria de Aurizberri / Espinal (Navarra)

Proposamena

LAS HUELLAS DE LA VIDA

La famosa autora de *La joven de la perla* nos presenta una novela exquisita que habla de las mujeres y su papel en la historia de la ciencia. Se ha convertido en uno de los libros más leídos de la biblioteca gracias al boca a boca.

En las playas de la costa inglesa, en el siglo XIX, dos mujeres, Mary Anning y Elizabeth Philpot, se dedicaban a buscar las huellas de la vida en los fósiles que encontraban en los acantilados de Lyme. Nunca reconocidas por el mundo científico de la época, dominado por hombres, contribuyeron al descubrimiento de cientos de fósiles que cambiarían el

mundo tal y como se conocía hasta la fecha, siendo las primeras paleontólogas que pusieron en duda, con sus descubrimientos, los cimientos de la religión y la creación del mundo. No hay que olvidar que ellas dudaron del origen de las especies mucho antes de que apareciese la teoría de Darwin.

La autora, en esta novela a dos voces, se basa en un cuadro para desarrollar la trama a modo de biografía literaria de las protagonistas. A la vez que la pintura es la excusa para dar paso a la narración, el estilo de Tracy Chevalier va más allá de la historia en sí, ya que dibuja con sus pin-

celadas una amistad enfrentada tanto con la Iglesia, que repudiaba sus descubrimientos tachándolos de herejía, como con los científicos de la época, que se aprovechaban de la sabiduría de ambas para luego mantenerlas en el anonimato. Tracy Chevalier no sólo nos narra de manera sencilla, con calma y sin artificios, cómo fue para estas mujeres su vida íntima y más privada, llena de sinsabores y desengaños, sino que consigue transmitirnos su pasión por los fósiles y pone de relieve la labor de las mujeres en el desarrollo científico y humano, un papel tantas veces denostado.



**LAS HUELLAS
DE LA VIDA**
Tracy Chevalier
DUOMO

Profila PRIMO LEVI

GIZAKI DESEROSO BAT GIZAKIARENTZAT



MIKEL IRURTIA
Itzultzalea

Literatura kontzentrazionarioaren zimen-datzale, Primo Levik bere ondoan eraman omen zuen beti suizidioaren aukera as-katzalea. Edo ia beti:

"Suizidioa gertakari oso arraroa zen Lager-ean (kontzentrazio eremuan). Suizidioa gertakari filosofiko bat da, pentsatzeko gaitasunak determinatua: heriotza desiratu genezakeen, baina ez geure burua hiltzea pentsatu. Ni suizidioaren –suizidatzeko ideiaren– ingurumarian bizi izan naiz Lager-aren aurretek eta ondotik; inoiz ez Lager-ean."

Izan ere, Leviren biziadria (Torino, 1919-1987), bere buruaz beste egin arteko sa-kontze –eta hondoratzet– bat izan zen, hau da, beheititu ahala gero eta garaia-goa zen humanista batena:

"Ni ez naiz faxista, aurrerakuntzaren lanabes gailen gisa sinesten dut arrazoian eta eztabaian, eta, hori dela bide, zuzentasuna lehenesten diot gorrotoari."

Ogibidez adimen eta bokazio handiko kimikaria izan arren, alferrik bilatu zituen gizakiaren erreakzioak esplikatuko zituzten aldagaien legeak, batik bat Auschwitzeko

esperientzia erdiragarria –1944ko otsailetik 1945eko urtarriera– bizi izan eta gero: "Baldin eta nik honela jokatzen badut", galdeztzen zion bere buruari, "nola erreak-zionatuko du eskuan dudan sustantzia honek edo aurrez aurre dudan gizakiak?". Bere arima aratzak ezin baitzuen burutu "Auschwitz existitu den mundu batean bizi beharra." Eta, hartara, nazi jendea formula bakar batera murriztu zitekeela ondorioztatu zuen: etsipenarenera. "Babeslekuak eta lubakiak eraiki dituzte, kalteak konpondu, berreraiki, borroka-

tu, antolatu eta erail. Zer besterik egin lezakete? Alemaniarrak dira: beren joka-bide hau ez da hausnartua eta erabakia izan, beren izaeratik eta hautatu duten patutik eratorria baizik. Ez lezakete bes-terik egin."

Eta, gas-kamerarantz zinhoazen ama-haur haiek gogoan, patuaren aurka errebelatu beharra aldarrikatu bazuen ere –"bihar zuen haurrearekin hiltzera bazinderamatza-te, ez zen iokete gaur jatekorik emango?–, Levi hondoratuartentzat agian ez zen inoi-zalantzarak gabeko erabakirik izan.

BLUME
www.blume.net



224 págs.
21,5 x 27,5 cm
Tela
PVP 29,90 €




156 págs.
22,5 x 33 cm
Cartoné
PVP 39 €



208 págs.
19,5 x 23 cm
Flexi/Rústica
PVP 24,90 €




256 págs.
15 x 23 cm
Cartoné con
sobrecubierta
PVP 24,90 €



64 págs.
19 x 21 cm
Cartoné
PVP 12,90 €

32 págs.
26 x 26 cm
Cartoné
PVP 12,90 €





IRATI JIMÉNEZ IDAZLEA

BARREN-BARRENEAN

IRAKURLEAK, AKORDATZEN?

Idazleei izugarri gustatzen zaien idazle batek, **Raymond Carverrek**, izenburu zoragarria jarri zion bere narrazio liburueta bati. “¿De qué hablamos cuando hablamos del amor?” edo “Zertaz hitz egiten dugu maitasunaz hitz egiten dugunean?” Liluratu egiten ninduen baita irakurri baino lehen ere, etxeko apalategian ikusten nuenean, eta askotan izaten dut “maitasuna” hitza beste batekin ordezkatu eta era guztietako hitz jokoak egiteko bulkada. Gaur ez diot gogo horri eutsiko eta literaturaz hitz egiten dugunean zertaz hitz egiten dugun galdetuko dizuet. Bai, zuoi, irakurleoi.

Ze, zuei ere gertatuko zitzaiuen inoiz, literaturari buruzko artikulu bat irakurtzerakoan, bereziki egilea idazle bat denean, artikuluaren bukaerara iristea eta penstatzea “ez du literaturari buruz ezer esan”. Eta literatura esaten dudanean “testu literarioak” esan nahi dut edo, kaleko hizkeran esatearren, “liburuak”.

Pertsonaiak, gaiak, ikuspuntuak, deskribapenak, elkarrizketak edo argumentua. Horiek testuaren –liburuaren– elementuak dira. Baina literaturari buruz hitz egiterakoan ez dira gehiegiz agertzen, ezta? Askotan hitz egiten da, ostera, kanon literarioari buruz; kritika literarioari buruz, bereziki kritika bigunegia edo gogorregia ote dugun –enegarrenez– galdezteko; eta idazlearen profesionaltasunari buruz. Bereziki profesionalak izan nahi dutela erreibindikatzeko.

Argi dago idazleentzat gai hauek interesgarriak direla, azken batean, kanon literarioaz hitz egiten dugunean literaturaren historiara pasatzen diren lan literarioiei buruz hitz egiten dugu eta horiek aukeratzeko irizpideei buruz; kritikari buruz hitz egiten dugunean, beste maila batean, baina horretaz hitz egiten dugu; eta idazlearen profesionaltasunaz berba egiten badugu... tira, esan beharrik ere ez dago horrek idazlearentzat garrantzia duela. Beraz, eta hona nire teoria, ez ote da izango literaturari buruzko hausnarketak eta iritziak eta artikuluak idazleentzat direla interesgarriak –izateko tan– baina irakurleei bost axola zaizkiela? Izan ere, eta honezkero beharbada konturatuko zineten idazle bat protagonista zuen beste nobela bat irakurtzerakoan,



idazleak oso gai garrantzitsua dira... idazleentzat. Baina eta irakurleak? Literaturaz hitz egiten dugunean akordatzen gara irakurleentzat ere idatzi beharko genukeela edo irakurleentzat nagusik? Eta literatura egiten dugunean?

Aspaldi iruditzen zait euskal literatura esaten dioguna-ren gaitz endemiko gehienak irakurleei bizkarra emate-tik sortzen direla. Literaturari buruz hitz egiten dugunean eta literatura egiten dugunean.

Azkenik, eta hiru gai horiei dagokionez neure iritzia ere ematearren. Ez dut uste idazleok kanonari buruz kezkatu behar dugunik. Irakurleek erabakitzen dute zeintzuk izango diren belaunaldi bakarrean hilko diren autoreak eta zeintzuk literaturaren historia ilumi-natuko dutenak.

Kritika literarioari dagokionez, biguna edo gogorra baino gehiago ona ala txarra izango da, alegia, testua ulertzan eta uler arazten duena edo ariketa literarioarekin zerikusirk ez duena. Eta idazlearen profesionaltasunari dagokionez, idazleak beti izan behar du profesionala, alegia, beti egin behar du bere ofizioa profesionaltasunez. Hortik bizi ahal badu edo ez bere kontableari dagokion kontua da.

Azken asteotan hiru liburu zoragarri irakurri ditut. Benito Pérez Galdós *Trafalgar*, Julio Cortázar *Final de Juego* eta Lope de Vega *El valor de las mujeres*. Denak bere sa-soian kritikak eta sistema literarioak gutxietsitako auto-reenak, denek lortu zuten irakurleen errepublikan leku bat eta literaturaren lorian betikotasuna. Idazleek beste idazle batzuen adibiderik jarraitzekotan, haiena jarraitu beharko genuelakoan nago.



ARGAZKIA: LUIS MAGÁN

“Hizkuntza hamaika gizaldiren obra erraldoi eta anonimoa dugu, airezko monumentua, baina ez gara jabetzen”

PATXI ZUBIZARRETA

Patxi Zubizarreta helduentzako lanetara itzuli da *Julien Vinsonen hegaldia* nobelarekin. Italiar gazte baten begietatik ikusita erakutsi digu euskal kultura. Eta historiako pasarte ezezagun bezain harrigarria jorratu du.

Atzerriko euskalariak dira liburuko protagonistik. Zergatik? Kanpoko begirada nahi zenuen?

Filologoa naiz, baina filologia urte askoan baino gehiago ikasi eta gozatu dut Jurgi Kintanak Azkueri buruz idatzi zuen lanarekin (*Azku, bilbotar ezezaguna*): horra hor euskara batuaren protagonistak –gehienetan eliz girokoak– eta gurera etorritako *bascolegue* edo euskalariak, tartean Julien Vinson, orduko giro harten guztiz atipikoa. Gorria zen, ateo, darwinista: euskara bitxikeria linguistikotzat zeukan, aztertu beharrekoa, bai, baina bere ustez ez zuen balio etorkizunari aurre egiteko eta hiltzen utzi behar zen. Aldiz, idazle eta euskalari atzerritar askok Euskal Herria mitifikatua zuten; Humboldt prusiarrak, adibidez, euskara entzutean Noeren garaiko hizkuntza entzutzen ari zela uste zuen, baina hark ere iragarri zuen euskararen heriotza...

Gerran zegoen Iruñean globo bat agertzea –eta tartean Julien Vinson– hain da harrigarria, baina benetan gertatu zen...

1875, Baiona, Saturno globoa non eta karlistek setiatua


zuten Iruñean erortza..., gezurra dirudi, baina benetako pasadizo da. Gertakari horren berri izan ez banu, ez nuen nobela idatziko, ez nuen Vinsonen izaeran eta obran arakatuko, eta orain esan dezaket ikerlari ahaztuegia dugula.

Bidaia horretan argitu gabeko atalen bat geratu zen?

Vinsonek txosten luze batean jaso zituen Saturnoren gorabeherak, baina intrigaren aldetik hasieratik pensatu nuen zerbaitek ezkutatzeten zigula. Globoa beti dago haizearen mende, ezin duzu Iruñera nahita zuzendu, baina modernitatearen ikurra zen eta gerretan lagunaria gerta zitekeen, liberalei laguntzeko...

Protagonista eta kontalaria, Chiara, italiarra da. Haren begietatik ikusita agertzen gara euskaldunok eta euskal kultura, eta ez gara hain ezdeusak...

Etxepare institutuaren bitartez, hainbat euskara ikasle ezagutzeko zortea izan dut, Venezian eta Bolonian, adi-



JULIEN VINSONEN
HEGALDIA
Patxi Zubizarreta
ALBERDANIA

bidez, Iñaki Alfaroren eskutik, eta ikuspuntu egokia iruditu zitzaidan Vinsonen garaiko eta gaurko euskalzaleasunean sakontzeko. Azken mendeotan euskarak eman duen hitzik unibertsalena segureuenik *akelarre* izango da, baina gerora *zulo* nagusitu zen... Euskal Herri mitifikatuegi hora gudaleku bilakatu zen. Behin, Kordobako lagun batek gurera eterri nahi izan zuen Baroja eta Unamunoren –Vinsonen jarraitzailea...– bizi-tokiak ezagutzeko, baina hedabideek zabaldutako ikuspegi kasik belikoagatik ez etortzekotan egon zen... Hori ere gainditu, eta halako ikuspegi osoago bat eskaini nahi izan dut, kanpotik eta goitik, globoa lagun. Ez gara hain ezdeusak, ez gara hain itsusiak.

Ahozko tradizioek eta, bereziki, ipuiniek, pisu handia dute liburuan. Zergatik?

Beldurra diot *sukalderri* izateari, *postalerri* bilakatzeari. Hizkuntza bat hamaika gizaldiren obra erraldoi eta anonimoa dugu, airezko monumentua, baina ez gara jabetzen. Zorionez, Humboldt edo Vinsonen bezalakoen iragarpeneak ez ziren bete eta hizkuntza bat hiztegi bat eta nor-nori-nork aditz sistema baino askoz gehiago da, musika da, kolorea da, ahozkotasunak utzi digun ondare ikaragarria.

HEKTOR ORTEGA
Kazetaria



África más allá de la herida


PENÍNSULA ODISEAS



Todo sobre LA RED COMÈTE en el País Vasco

Juan Carlos Jiménez de Aberásturi acaba de publicar *Camino a la libertad*, un libro en el que reconstruye de forma asombrosamente minuciosa la historia en el País Vasco de la red Comète, la organización clandestina que se especializó en rescatar y llevar a lugar seguro a aviadores aliados derribados sobre la Europa ocupada por los nazis. Lo hace además con profusión de imágenes, muchas inéditas o muy poco conocidas, e incluso con un desplegable con las principales rutas que utilizó Comète para atravesar la frontera, la del Bidasoa y la de Baztan.

Cualquier momento es bueno para recordar una historia como esta, pero este parece especialmente oportuno, entre otras razones porque el 1 de septiembre se cumplen ochenta años del inicio de la II Guerra Mundial y, aunque es cierto que los vascos estuvieron presentes en todos los frentes de aquel conflicto, incluido el del Pacífico, fue en torno a la frontera del Bidasoa donde jugaron un papel más singular. Jiménez de Aberásturi lo explica así: "La España franquista era deudora de las potencias del Eje y proclive a sus intereses, pero su precaria situación económica y la



CAMINO A LA LIBERTAD

Juan Carlos Jiménez de Aberásturi
TXERTOA

presión de los Aliados la llevaron a declararse neutral. Aquello hizo que el País Vasco se encontrase en una posición estratégica entre la Europa ocupada por los nazis y un país formalmente no beligerante. De modo

que el paso de la frontera con personas, material o información se convirtió en una de las actividades más características e importantes de la Resistencia en el País Vasco. De todas las redes que se tejieron en torno a la muga, la más famosa es Comète".

Pero tan importante como la situación estratégica lo fue el elemento humano, "una población con una larga tradición de contrabando que veía con naturalidad el paso clandestino de la muga". Precisamente por ello, el autor ha optado por contar la historia de la red sobre todo a través de los hombres y mujeres que participaron en ella. Entre los nombres más conocidos se encuentran los de la propia fundadora, la jovencísima *Dedée De Jongh*; el legendario *mugalari Florentino Goikoetxea*; la infatigable *Kattalin Agirre*; Alejandro Elizalde y sus amigos refugiados, y, ya al sur del Bidasoa, las familias Iriarte, Garayar o Aracama. Pero hubo muchos más. El libro incluye referencias de 150 agentes y colaboradores de Comète que actuaron en el País Vasco. Muchos pagaron caro su compromiso, como *Frantzia Usandizaga* y *Juan Manuel Larburu*, deportados y fallecidos en campos de concentración.

Nunca puede decirse que un libro es el "definitivo" sobre tal o cual tema, pero sí que *Camino a la libertad* es el más completo sobre Comète en el País Vasco publicado hasta ahora. Y también, de paso, que su lectura puede resultar muy estimulante en un momento en el que resurge el fascismo.

KARMELE URRUTIA

Periodista

**MAGNÍFICAS
EDICIONES
ILUSTRADAS Y
ACTUALIZADAS**



ALMA CLÁSICOS ILUSTRADOS



ERRELATOAREN AURPEGIAK


Boxeoaren mundu maskulinoa literaturara ekarri zuen Joxemari Iturralde idazleak (Tolosa, Gipuzkoa, 1951) *Perlak, kolpeak, musuak, traizioak* (2015) aurreko lanean. Bestelako unibertso bat ageri da *Jamaikako neska* lan berrian. Bere azken nobelak bezala, Pamielarekin argitaratu du.

Perlak, kolpeak, musuak, traizioak aurreko lanean bi euskal boxeolari ziren protagonistak. Oraingoan, aldiz, euskal jatorriko emakume jamaikar bat. Begirada aldaketa behar zenuen?

Nobelaa guztiek izan behar dute ezberdin. Horrek esan nahi du, beraz, begirada ere ezberdin izango dela. *Perlak, kolpeak, musuak, traizioak* nobelaa hiru protagonista zeuden, lagunak izandako bi boxeolari ospetsu eta sendagile bat. Traizio handi baten historia kontatzen zen han. *Jamaikako neska* nobela honetan, aldiz, ez dago horrelakorik; hemen euskal jatorriko emakume jamaikar batet bere bizitza kontatzen digu, Jamaikan hasi eta Euskal Herrian amaitu arte.

Dafne protagonistaren istorioa darabilzu Euskal Herriko historiaren atal baten kontaketa egiteko; bogako dago errelatoaren gaia. Zure ekanpena egiteko, kanpoan jaio eta hezitako baten begirada hautatu duzu?

Nobelaa honetan ez dago bakarrik Euskal Herriko historiaren atal baten kontaketa, askoz gauza gehiago ere kontatzen dira bertan. Dafne protagonistak leku askotako istorioak kontatzen dizkigu, ez baita alferrik bizi izan



JAMAIKAKO NESKA
Joxemari Iturralde
PAMIELA

Jamaikan, Argentinan, Mexikon, Holandan, Madrilen, Bruselan, Euskadin...

Errelatoaren kontu horretan, norberak aurkitu behar du horri buruzko erantzunek zehatz eta egiazkoena. Errelatoaren kontu hori ez da margo edo kuadro batek ematen dizun irudia; ez da txanpon batek dauzkan bi alde edo

aurregi horietako baten aukeraketa egitea; poliedro irregular bat da, alde edo aurregi asko eta ezberdinekin, alde edo aurregi horietatik batzuk handiago eta garrantzitsuago izango direnak. Poliedro irregular horren alde edo aurregi horiek guztiek osatuko dute, azkenean, erre-latoaren istorioa.

Jamaikako neska nobelaa pertsonaia ezberdin ugari daude, eta nork bere erantzuna dauka errelatoarekiko.

Tartekatu dituzu egiaitan gertaturikoak, egiazko geografiak... Fikzioa errealityarekin busti duzu?


Nobelaren hasieran Boris Vian idazle handiaren aipamen bat jarri dut: "Liburu honetan dena da egia nik asmatu dudalako". Idazleok, nik behintzat bai, beti nahasten du gu fikzioa hutsa errealityarekin. Bertan kontatzen diren gauza asko nik asmatuak izan dira, eta beste hainbeste benetan gertaturikoak izan daitezke.

Euskal Herritik kanpoko lurradeak ohikoak dira zure nobeletan. Oraingoan, Jamaika, Mexiko... Zergatik?


Nire liburuaren protagonista askok dute zerikusia Euskal Herriarekin, bai atzerrian dabiltzan euskaldunak direlako edota, alderantziz, kanpotarrak izanik hona etorri direlako. Esan bezala, nobela honetako Dafne protagonista, euskal jatorriko emakume jamaikarra, munduan barrena ibili ondoren, Argentinan, Mexikon, Holandan, Madrilen, Bruselan, Euskal Herria etorriko da azkenean, zenbait arrazoi ezberdin direla medio...

GORKA EROSTARBE
Kazetaria


La entrevista completa:
http://bit.ly/jamaikako_neska



Konta-kantatzeko festa giroko errimak.



Adiskidetasuna biren kontua da.



(In)komunikazioa gogoeta egiteko.




Landare jangarrien katalogo ederra.

Pamiela
Kalandraka



www.pamiela.com

Pamiela.Kalandraka



“Las cimas las podemos dejar allí arriba, y caminar juntos a los pies de las montañas”

PAOLO COGNETTI

Sin llegar nunca a la cumbre (Literatura Random House, 2019) es el relato de un viaje a los paisajes rurales, los caminos, los sentimientos nómadas y las emociones humanas. Se trata de un libro que Paolo Cognetti (Milán, 1978) ha escrito desde su verdad, para narrar certezas universales que tienen que ver con la vulnerabilidad del ser humano y su capacidad para ser feliz gracias a las cosas más sencillas.

Abre el libro con una maravillosa cita de Tiziano Terzani, y, al final, lo dedica a su memoria, mencionando que es él quien les ha guiado al Himalaya. ¿Cómo le ha acompañado Terzani?

Terzani ha sido uno de los principales conocedores de Asia que hemos tenido en Italia. Estaba enamorado de ese continente y vivió allí 30 años. Escribió muchos libros sobre Asia, que aconsejó vivamente a los lectores: especialmente *Un adivino me dijo* y *Un otro giro di giostra*. Siento que el viaje al Himalaya significa seguir sus huellas.


A lo largo de la novela cuenta con un compañero inspirador e inseparable: Peter Matthiessen y su *Leopardo de las nieves*. ¿Qué ha supuesto Matthiessen en su vida como viajero y como escritor? Matthiessen representa otro mundo del cual procedo, que es la América de los *beat* y de los *hippies*, de los grandes viajeros. En un momento de su vida llegó a Dolpo y rea-

lizó el viaje que yo he vuelto a hacer muchos años después. En cuanto a la escritura, es un maravilloso ejemplo de *nature writing*, y a mí me fascinan los escritores que consiguen narrar el paisaje, hacer que viva, describir lo que ven y sienten y, solo con eso, cautivar al lector. He intentado hacer lo mismo.

Creo que ha escrito una novela maravillosa y necesaria, a contracorriente, que apuesta por el viaje y no por la llegada, por la convivencia y no por la conquista y por la búsqueda de la felicidad en la sencillez... ¿Es lo que pretendía?

Sí, precisamente esto. No puede ser que hayamos tenido el siglo XX, con todas sus utopías sociales, sus guerras y su deseo de paz, y ahora hayamos vuelto a discursos políticos muy pobres, a una forma de hablar brutal, a la agresividad y a la intimidación. Esta violencia la relaciono con la fuerte competitividad que se respira en todos

FOTOGRAFÍA: ROBERTA ROBERTO



SIN LLEGAR NUNCA A LA CUMBRE
Paolo Cognetti
RANDOM HOUSE

los ámbitos. Por eso, mi cuento es un pequeño acto de revolución y una pequeña oración. Vuelvo a hablar de armonía, de equilibrio, de respeto, de estar bien con los demás y en este mundo. Las cumbres las podemos dejar allí arriba, y caminar juntos a los pies de las montañas.

Habla del nuevo mundo como el desierto, donde hay demasiado de todo. Un desierto que en las páginas de su libro comienza a vislumbrarse cuando después de mucho tiempo los móviles vuelven a sonar.

Eso es: siento que la omnipresencia del móvil, de internet, de los mensajes de todo tipo que nos llegan todo el tiempo, del entretenimiento constante al que estamos sometidos, ha empobrecido nuestras relaciones directas y nuestra capacidad de concentración. Caminar en la montaña durante tres semanas sin móvil ha sido una experiencia apasionante. Después de unos días de "silencio digital", uno vuelve a poder leer diez páginas de un libro sin pausas, a abrir un cuaderno y escribir durante un par de horas, consigue andar en silencio y pensar durante todo un día en su propia vida, en sus afectos, en sus proyectos. Creo que, en los próximos años, hacer esto será un gran privilegio, como ir de vacaciones a una isla tropical.

TERESA SALA
Periodista

La entrevista completa:
http://bit.ly/paolo_cognetti



NEGRA ALFAGUARA

LITERARIAMENTE ADICTIVA

MAXIME CHATTAM

CARMEN MOLA

ALFAGUARA

Penguin Random House Grupo Editorial

Disponible en ebook

Gorde ezin zena zabaltzeko beharra

2015eko abenduak 24. Albiste lazgarri bat: Alan Garciak, 17 urteko gazte transexualak, bere buruaz beste egin zuen Bartzelonan. Gazteari irain eta iseka egiten zioten institutuan, eta haren amak argi salatu zuenez, krimen sozial bat izan zen hura. **2017ko martxoa.** Euskal Herrira iritsi zen Hazte Oir elkartearren autobusa. Hala zioen: neskek alua dutela eta mutilek zakila, "ez zaitzatela engaina". **2017ko azaroak 1.** Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Maialen Lujanbiok zutik ipini zuen Irungo kirolegia, transexualitateari buruzko bertsoaldiarekin. Azken puntu hau entzun, eta ez-tanda egin zuten ikus-entzuleek: "nire inon ez egon nahia ote / da zure ezinegona?". **2018ko otsailak 15.** Beste albiste lazgarri bat: Eka Lersundik, 16 urteko gazte transexualak, bere buruaz beste egin zuen Ondarroan.

Azken bost urteotako mugarriak dira denak. Ageri-agerian jartzen digute gizartearen badela kezka bat, egonezin bat, eta zerikusi handia duela genero-arau zurrunekin, derrigorrean neska ala mutil izan beharrerkin eta neska ala mutil izateko modu itxiekin. Auzia ez da atzokoa, ordea. Kattalin Miner idazle eta kazetari feministak bete-betean heldu dio gaiari bere lan berrian: *Moio. Gordezea ezinezkoa zen*.

Historia hurbilari begira

Memoria-arketa bat. Horixe da, muinean, Minerren liburua. Tene Mujika beka eskuratu zuen 2017.aren amaiera aldean, eta sari horren emaitza da aurtengo maiatzean aurkeztu duen lana. Historia hurbila lantza da bekaren helburua

-Elkar argitaletxeak eta Debako Udalak antolatzen dute, elkarlanean- eta Euskal Herriko historia hurbileko gertaera zehatz bat heldu dio hernaniarrak: izan ere, 2007an, bere buruaz beste egin zuen Aimar Elosegia gazte transexualak.

Adiskideak ziren Miner eta Elosegia –lagunartean, Moio deitzen zioten Elosegiri, eta hortik dator liburuaren izenburua-. Autoreak kontatu digunez, kezka pertsonal batetik abiatu zen proiektoa. Elosegia hil zenetik hamar urte igaro, eta "har bat, arantzta bat" nabaritu zuen: "Lehen kolpea izan zen ariketa pertsonal bat, eguneroko bat egiten hastea, gaizki egona nondik zetorren bilatzeko". Berehala konturatu zen, ordea, egonezin horretan bazirela faktore sozial asko, eta "sentimendu, duda eta kezka asko konpartitua zirela".

Bizipen pertsonaletik, irakurketa politikorantz

Hainbat pertsonarekin hitz eginez osatu du lana Minerrek. "Segituan konturatu nintzen, proiektu bat osatuko banuen, interesanteena ez zela nire ahotsa bere horretan, baizik eta ikustea ahots ezberdinak konpartitua zitzaketen ikuspuntua. Jendearekin hitz egin nahi nuen, jendea entzun nahi nuen". Beraz, jendearengana jo zuen, eta hitz egiteko gogoz topatu zuen hura ere: "Elkarritzeta ditudan guzti-guztiekin esan didate ez dutela honestaz hitz egiten edo ez dutela hitz egin hamar urte hauetan, gertatu zen garaian izan ezik. Ez dakit zergatik gertatu den, minagatik agian, baina hutsune handi bat ikusi dut hor. Hitz egiteko behar handia zegoen".

Bederatz lagunen testigantzak bildu ditu, "ian arlo edo arlo emozional ezberdinak": Ainara, Ane eta Uso, adiskideak; Ander Elosegia, anaia; Ana Txurruka eta Joseba Iturrioz, Medeak talde feministako kideak eta Elosegia hil zen garaian Hernanin proiektu feministak bat dinamizatzen ari zirenak; Maialen Lujanbio, bertsolaria eta Elosegiren agur-ekitaldian parte hartutakoa; Iratxe Retolaza, literatur ikertzailea eta Genero-arketak liburuaren koordinatzaileetako bat, eta Brayan Altimasberes, gazte transexual hernaniarra.

Eta hala dagi bidea memoriak liburuan, lekukotzaz lekukotza, kasua beren haragitan eta oso gertutik bizi izan zutenekin hasi eta Elosegia bertatik bertara ezaugutu ez baina gertaerari buruzko irakurketa politiko bat egin duten horiek arte. Miner: "Niretzat importantea zen nola aurkeztu hau gaiari buruz ezer ez daki bat, gaiak ukitu duenari... Nola lortu oreka bat. Ez nuen asko pertsonalizatu nahi Aimarrenagan, ez zen hari buruzko biografia bat, baizik eta jazotakoaren aurrean izan diren erreakzioen eta memoriaren liburubat". Horretarako, autoreak argi zeukan osatze emozionaletik hasi behar zuela, eta ondoren jarraitu irakurketa politikorantz.

Heriotza politikoa, ardura kolektiboa

Heriotza politikoa eta soziala izan baitzen. Gure gizarte-antolamenduaren oinarrizko gai bat nabarmendu dute elkarritzetauek: "Gaur egungo distantziatik,



ROMPE CON EL PASADO

CAMILLA LÄCKBERG

UNA JAULA DE ORO

MAEVA | NOIR




transexualitateari eta genero-arau zurrunei begira jarri dira gehienak, hor baitago koska; azken finean, suizidioa ondorio bat da". Minerrek aitortu digunez, norberari gertu tokatzen zaionean gauza latzen bat, eta gai hori ez denean politikotzat hartzen, eza-gutzen dugun politikaren eremuan behintzat, bada, orduan, asko kostatzen da gertaerari izaera politikoa ematea. Horri buruzko perspektiba aldatzeko aukera eman dio liburuak: "Konturatu nintzen ez zela nire lagunaz egiten ari nintzen liburu bat, baizik eta ardura kolektiboan presente dagoen zerbaite, egon zena eta jarraitu behar duena egoten".

Zergatik? "Beste heriotza batzuekin, beste gertakari batzuekin, oso argi ikusten dugu, baina hemen... Azken batean norbere buruaz beste egitea hautu bat da, eta hautu horren arrazoia asko izan daitezke. Gogorra egiten zaigu esatea pertsona batek bere buruaz beste egin duela, besteak beste, gizartea horrela eta horrela egituraturaz dagoelako. Baina hala da, eta uste dut gakoa dela politikotasun hori inongo lotsarik eta konplexurik gabe ematea, eta guk gure buruari onar-tea heriotza politiko bat izan zela eta horrela gogoratu behar dugula".

DANELE SARRIUGARTE
Idazlea

MOIO: GORDETZEA EZINEZKOAREN

Kattalin Miner
ELKAR



Memoria egunero egiten delako

Memoria landu egin behar da. Egin. Kattalin Minerrek esan digunez, Aimar Elosegiren borroka jasota, zor bat kitatu duela iruditzen zaio: zor bat kitatu du lagunarekin, eta, bestalde, proiektua guztiz bat dator egilearen ibilbide militantearekin. Azkenik, osatzeko balio izan du liburuak, autoreak halako baretasun bat nabaritzen omen du orain inguruan "gaiaz idatzi, hitz egin eta negar egin ahal izateko".

Orain, berriz, hausnarketa zabaltzeko garaia iritsi da; gordetzeaz gainera, memoria sozializatzeko garaia. Minerrek esan digunez, poza hartuko du baldin eta liburuak balio badu "memoria-arijeta hori aktibatzeko, herrian mugitu zuena beste toki batetik oroitzeko, eta borrokan jarraitzeko".

Todos los veranos tienen una historia en Debolsillo
LAS MEJORES LECTURAS A UN PRECIO IMBATIBLE

DEBOLSILLO

Penguin
Random House
Grupo Editorial



FUTBOL MUNDUAREN KARIKATURA, IRIGOIENEN NOBELA BERRIAN

Joan Mari Irigoienek (Altza, 1948) bere azken eleberria kaleratu du: *Derbia*, realzale eta athleticzale etsaitu batzuen ika-mikan oinarritutiko satira umoretsua. Osasunez makal dabilen arren, argi du burua eta arina idazkera, elkarrizketa zirtolari honetan erakusten digun gisan.


Kaixo, Joan Mari. Hasteko, zure osasunaz galdu behar. Zer moduz zaude? Osasuna primeran dabil. Baino nik buruan dudan osasuna, beste bat da, beharbada.

Nobelaren berri bat idazteko indarra eta kemenena atera dituzu. Ez da makala...
Bueno. Kemenena ere bere kaiman ahaltsuak bizi du...

Orain urte batzuk atera zenuen azkenaurreko eleberria: *Arma, tiro, bamml!*, armen salmentari buruzkoa. Orain, berriz, futbolaren mundua hartzdu duzu jopuntuan.
Biotan ere gerra protagonista.

Umorezko nobela bat egitea zen zuretzat helburu nagusia eta futbola aitzakia, ala alderantzik?
Umorezkoa egitea nuen lehen asmo: bizitzari agur egiteko modu egokiagorik nekez...

Umorezko lan gutxi argitaratu ohi da gure artean, ezta? Gutxietsita ote dagoen kultur mundu serio honetan.
Nik nahi dudana egiten dut, haatik. Horrezaz gain, umorea egiteko era asko daude... eta badakit batzuei asko gustatuko zaiela, eta beste batzuei piperrik ere ez!



ARGAZKIA: ANDER GILLENEA



DERBIA
Joan Mari Irigoiene
ELKAR

Are gehiago: irribarrearen eta irri-karkararen artean zein aukeratuko nukeen lehenago galdeztuko balidate, zirt eta zart aukeratuko nituzke: biak alegia, ex aequo.

Realzale eta athleticzaleak ekidistantziaz trataritu dituzula esango zenuke, ala alde baterantz egin ote dizu balantzak?

Bueno. Nobelaren, nagusiki, satira lotsagabe bat da, batzuk eta besteak jopuntu dituena.

Eta baten bat haserretuko ote zaizun pentsatzen duzu, ala ez duzu halakorik espero?

Pentsatu dut, bai. Gaurko egunean, izan ere, futbola kirol sakratu bihurtu da, eta zuk badakizu zein izan den, Historian zehar, hondamendiak sortu dituen eragilerik nagusienak: erlijioa.

Eta honen ondoren, beste idazkirkirik sortzeko gororik, ideiarik, proiekturik...?

Bai, baditut asmo batzuk, ea orgasmorako bidean jartzen ditudan, kar-kar-kar...

TERESA LARREA
Kazetaria



Más de 100.000 ejemplares vendidos en Australia
donde se ha convertido en el libro del año

Las autoridades advierten que la lectura de esta novela produce adicción y puede cambiar tu vida

HarperCollins



LUIS LANDERO

Lluvia fina es la nueva novela de Luis Landero (Badajoz, 1948), un autor premiado (Premio Nacional de Narrativa), respetado por la crítica, que cuenta también con el favor del público lector.


La historia de este libro arranca cuando Gabriel decide reunir a toda la familia para celebrar el ochenta cumpleaños de su madre. Su mujer, Aurora, trata de disuadirlo porque prevé que esa iniciativa reavivará los viejos conflictos.

En la novela se afirma que no es verdad eso de que las palabras se las lleva el viento. Desde luego, en la familia que protagoniza el libro parecen indelebles.

Es que a menudo, y en todos los ámbitos, las palabras pueden ser peligrosas. Todos sabemos hasta qué punto puede herir una palabra a destiempo, un equívoco, un descuido, no digamos un insulto, y hasta las pausas, los silencios, se cargan a veces de sentido y son tan elocuentes o más que las mismas palabras.

Aurora, la protagonista, tiene que aguantar los desahogos telefónicos de sus familiares. A veces descargamos nuestra basura emocional sobre personas sin fijarnos en cómo están.

Es que necesitamos contar lo vivido. Vivir es vivir más contarlo. Parece que hasta que no contamos lo ocurrido no se acaba de vivir del todo. El cuento completa



FOTOGRAFÍA: ITZAR GUZMÁN



LLUVIA FINA
Luis Landero
TUSQUETS

uno de los personajes. La verdad final es la suma de todas las pequeñas verdades y mentiras de cada cual.

"En todas las familias hay mentiras (...), y es que en gran parte somos nuestros secretos". En Lluvia fina hay uno terrible.

Todos tenemos nuestros secretos, que normalmente son cositas sin importancia, y así ha de ser. Está nuestro escaparate y está nuestra trastienda. Y todos, por otra parte, mentimos casi a diario. Mentiras inofensivas, pero que nos sirven para convivir. Y luego están los grandes secretos, esos que corroen la conciencia y que entrañan un daño moral.

Los personajes están muy bien definidos, y eso que los conocemos por las conversaciones que mantienen con Aurora.

Creo que lo más importante de una novela, de un relato, es el personaje. Si se crea un buen personaje, todo lo que se cuente de él, o lo que él diga, será interesante. Y al revés: un buen argumento, si no tiene un personaje que lo sustente, puede ser un desastre.

TXANI RODRÍGUEZ
Periodista

La entrevista completa:
http://bit.ly/luis_landero



ALMUDENA GRANDES

La herida perpetua

Un libro necesario para entender la España de hoy.

TUSQUETS
EDITORES



**“Benetakotasuna
bilatzen dut nire
hitzen bidez”**

CASTILLO SUAREZ



ARGAZKIA: ELKAR



IRAUTERA
Castillo Suarez
ELKAR

Castillo Suarez (Altsasu, 1976) zazpi urteko isilaldiaren ondoren Irautera poesia liburuarekin itzuli da. Iruditeria begetala eta abandonuaren gaia bildu ditu olerkiotan.

Poeta emankorra izan zara beti, garai batean bi urterik behin liburu berri bat atera ohi zuena. Oraingoan, berriz, zazpi urte igaro dira azken poemategia atera zenuenetik. Badu horrek zerzagiren bat?

Uste dut idazle bat gerta dakioko gauzarik makurrena dela aurrekoa baino liburu txarragoa egitea. Alde horretatik, *Urtebetze festa* izan da orain arteko nire libururik biribilena, eta egiazki uste nuen ezin nuela hoberik idatzia. Ez dago bestelako arrazoirik. Sumatu dudanean liburu –on– bat nuela burutan, idazketa prozesu oso azkarra izan dut: bi hilabetetan idatzitako liburua da.

Liburua irakurriz nabarmena egiten den ezagarri bat da iruditeria begetala, basokoa. Basoa gure herrietatik oso gertu dugun arren, gu-

txitan agertzen da literaturan, eta hemen indar ebokatzale eta edertasun berezia lortzen dira horren bidez.

Maiz urrutiko paisaietara jotzen dugu –batik bat, poetok– irudi iradokitzaleagoen bila. Nire kasuan, gerutura begiratu nahi nuen. Joseba Otondori zor diot hori. Berarekin ari naiz lanean landa-ikuspegia buruzko egitasmo batean, eta horrek behartu nau nire saihetsa errrotik mugitzera, alegia, nire inguru hurbilari begiratzen. Baino ez nuen nahi –eta horren adibideak daude egungo euskal poesian– errromantizismoz bustitako poemak idatzi, edo landa-eremuaren gorazarrea egin –gero eta gehiago zabaltzen ari den joera Espaniako literaturan, bestalde–. Benetakotasuna bilatzen dut nire hitzen bidez, eta nirea ez da inguru bukoliko bat, arras ederra izanagatik.

Haustura sentimental baten arrastoak utzi dituzu han eta hemen; normalean zure poesia ez da barrena biluzik erakustekoia izan...

Uste dut abandonuari buruzko liburu bat dela, haustura sentimental bati buruzkoa baino gehiago. Abandonatua izan denaren ikuspegitik eginda dago, bizirauteko harten diren hautu kontziente eta inkontzientei buruzkoa. Bizirauteari buruzkoa da, hobeki esan. Berri Txarrak musika taldea etorri zait akordura berriz ere: “Bizi ala

iraun, bizi ala iraun, biziraun zu barik”. Aipu ederra izan zitekeen liburu honetarako.

Beti egin izan duzu poesia irakurgarria, hermetismo ilunetik ihes egiten duena, baina aldi berean, komunikagarria izanagatik, irakurketa unibokoiekin egiten diezu, testu irekiak proposatuz. Liburu honetan ere oso presente dago hori.

Badira nanoipuinen antzekoak diren poemak, nolabait esateko hasiera bat eta bukaera bat dutenak, baina nik nahigo ditut zer pentsatua ematen dizuteneak, autoan bakarrak zoazenean buruan bueltaka dituzunak. Poema bat idazten dudanean oso garbi daukat irakurlearendako ari naizela –niretako bakarrik arituko banitz, egunero-koia idatziko nuke–. Horregatik hautatzen ditut kontu handiz hitzak, ez dadin irakurlea gal –eta ez dut irakurlea gutxietsi nahi horrekin–, baina, aldi berean, bere bidea egin dezan.

TERESA LARREA
Kazetaria

Elkarritzeta osorik:
http://bit.ly/castillosuarez_irautera



CUADRADOS DE DIVERSIÓN



¡Píldoras de desafío y entretenimiento sin límite para mantener nuestra mente en forma!
¡320 páginas de diversión!



Síguenos en:

© Almaeditorial Almaeditorial

ALMA

LAS VIDAS PEQUEÑAS SON LAS QUE SUSTENTAN LA HISTORIA


Yo fui Gilles Nabarre es el sugerente título de la última novela de Mikel Alvira, un libro a caballo entre la novela histórica y de aventura. Ambientada en la Aquitania posterior a la Segunda Guerra Mundial, narra la vida de un huérfano de guerra, Gilles Nabarre. Hereda un barco, el *Literal*, que marcará su niñez, moldeará su carácter y se convertirá en su billete hacia el futuro.

Yo fui Gilles Nabarre. ¿A qué juega con este título? Las personas que leen son inteligentes, no hay que dársele todo masticado. Que descubran quién fue el personaje es parte de la propia estructura de la novela. Conocemos a Gilles desde la primera línea, pero... ¿son las cosas como realmente creemos que son?

Tras ese juego de palabras se esconde un niño, huérfano de guerra, que hereda un barco. La novela no se entiende sin ambos. ¿De dónde surge su inspiración?

Esta novela tiene mucho del Alvira que navega, del Alvira historiador y del Alvira emocionable, pero ni es un libro de náutica ni de Historia ni de autoayuda. Habla de la vida, la de los personajes y, por qué no, la de quien lee.

Capbreton, Burdeos, Dinamarca, Bilbao, la Margen Derecha... Además de marinera, es una novela viajera. Un periplo geográfico pero también vital. Viajar como metáfora. Encontrar como aprendizaje. ¿No decimos que la vida es un viaje? El barco es el pretexto



YO FUI GILLES NABARRE

Mikel Alvira
TXERTOA

para trasladar al personaje de la niñez a la madurez, y de un sitio a otro, invitando al lector a hacerse uno con sus dudas, euforias y aventuras. Para ello inserto las libretas manuscritas que el propio Gilles redacta a lo largo de su

periplo. Como resultado, una novela ágil en la que siempre sucede algo, da igual dónde.

Otra vez Aquitania, esta vez Capbreton. ¿Qué tiene que le inspira tanto?

Soy un enamorado de Aquitania. Es imposible deambular por sus rincones y salir indiferente. *El mar que te debía* transcurría en un pueblo ficticio de Aquitania, Saint Henri. Ahora he querido fijarme en uno real, Capbreton, quizás porque esta novela se nutre de la Historia auténtica. No en vano, junto a una geografía veraz, aparecen personajes reales de aquellos años.

